

**AZAROAK 25, EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIA EZABATZEKO  
NAZIOARTEKO EGUNA  
ADIERAZPEN INSTITUZIONALA**

---

2003tik aurrera, emakumeenganako indarkeriari buruzko datuak jasotzen hasi zirenetik, 101 emakume eta 11 haur erailak izan dira Euskal Herrian. Zenbaki onartezin honen atzean izenak eta izanak daude. Erauzitako bizi proiektuak. Bereziki memorian gorde nahi ditugu, 2021ean zehar erail dituzten Erika Tavares, Conchi Gonzalez, Aintzane Pujana, Maria Pilar Berrio Jimenez eta Miarritzeko 75 urteko bizilaguna.

Urte honetan ere bereziki aipatu nahiko genuke, batetik, izebergaren punta diren erailketa hauetaz gain, ohikoak bilakatu direla gizonezkoek taldean egiten dituzten bortxaketei buruzko salaketa publikoak. Hala ere, eraso bakoitzaren aurrean, hauek salatu dituen Mugimendu Feminista saretu bat atera da kalera. Gaurko egunean ere, talde hauen lana eta ezinbestekotasuna azpimarratu behar dugu.

Bestetik, ezin ditugu aipatu gabe utzi indarkeria bikarioa, edo emakumeari, hirugarren pertsonak baliatuz, kalte psikologiko handiena eta larriena eragiteko egiten zaion biolentzia mota, seme-alabak, ama, aita, egungo bikotekidea, etab.en.. erailketa. Kasu horiek ere genero-indarkeria direlako.

Azaroaren 25ean emakumeen kontrako indarkeria mota guztien aurka gaudela adierazteko eguna da, eta, hori ez ezik, indarkeria sorrarazten duten eragile guztien aurka ere bagaudela esatekoa. Bizitza aske, seguru eta burujabeak eraikitzearen alde gaudelako.

“Normaltasunera” bueltatzen ari garela zabaltzen ari den egun hauetan, Indarkeria Matxista pairatzen duten horientzat, ordea, ospatzeko normaltasunik ez dagoela adierazi beharrean gaude.

Nabarmendu nahi dugu, azken aldian, sare sozialetan eta espazio publikoetan, kide feminista askoren kontrako jazarpen handia ari garela ikusten. Ez da kasualitatea. Espazio publikoa hartu eta diskurtso eraldatzaileak mahai gaineratzen dituzten emakume feminista hauek jazartzea, antolatutako gorroto eta indarkeria matxista kanpaina baten ondorioa da. Eredu digitalean gertatu diren jazarpen kasu hauek gutxitzera jo izan dugu, baina duten garrantzia eta emakume hauen jarduna eteteko duen asmoa salatzeko garaia da. Horregatik, lerro hauek erabili nahi ditugu, espazio horietan dauden kideei haien lana eskertu eta alboan gaituztela esateko.

Gutariko bakoitzari dagokigu egoera hori aldatzea, eguneroko zereginetan hasiz, gure inguru hurbilenean jardunez. Eta gure kasuan, Oñatiko Udaletik horretarako beharrezkoak diren baliabide tekniko, ekonomiko eta politikoak aktibatzekeo konpromisoa hartu behar dugu, berdintasun-unitateak sustatuz eta haiei laguntza

eskainiz, berdintasun-teknikarien egonkortasuna edo kontratazioa bultzatuz, edota emakumeen parte-hartzerako guneak sustatuz hala nola, emakumeen etxeak eta abar.

Amaitzeko,

Horregatik, Oñatiko udalak, honako konpromisoak hartzen ditu bere gain:

1.- Oñatiko Udalak konpromisoa hartzen du “normaltasunera” bueltatzen ari garen egoera honek indarkeria matxistetan izan ditzakeen eraginak aztertzeko, aldundiekin, Emakunderekin eta mugimendu feminista eta emakume-elkarteekin koordinatuta.

2.- Oñatiko Udalak konpromisoa hartzen du aurreko puntuan identifikatutako beharrei erantzuteko beharrezkoak diren baliabideak ezartzeko. Horretarako Udal honek ez du murrizketarik egingo 2022eko berdintasun-aurrekontuetan, eta gainera, berdintasun-unitateak egonkortzeko eta indartzeko konpromisoa hartzen du. Bide batez, Foru Aldundiari eta Emakunderi ere eskatzen diegu berdintasun alorreko aurrekontu-partidak gutxienez ez murrizteko, berdintasun-zuzendaritzak eta epaitegi espezializatuak modu iraunkorrean sendotzeko eta indarreko legeria berraztertzeko konpromisoa hartzeko.

3.- Oñatiko Udalak konpromisoa hartzen du instituzio arteko koordinazio protokoloaren jarraipen eta etengabeko ebaluaziorako baliabideak sistematizatzeko.

4.- Oñatiko Udal honek, indarkeria matxista jasan duten emakumeen arreta integrala bermatzeko lan egingo du, ahalduntze ikuspegi batetik, egungo egoerari egokitutako jarduera, espazioak, laguntzak, instituzio arteko koordinazioa, elkarlanerako espazioak...sortuz eta hobetuz.

5.- Oñatiko Udalak konpromisoa hartzen du, indarkeria matxistaren biktima diren adingabeak hautemateko eta esku-hartze goiztiarra egiteko, udal-zerbitzuen bidez eta beste eragile batzuekin lankidetzan (hezkuntza-, osasun- eta udaltzainek, etab.).

6.- Oñatiko Udaletik borroka feministaren alde hartu dugun konpromisoa berretsi nahi dugu, hau da, herriko mugimendu feminista eta Oñatiko Emakumion Kontseilua bezalako espazioak babestu eta indartzeko konpromisoa hartzen dugu, indarkeriarik gabeko gizarte demokratiko bat eraikitzeko bide eta tresna nagusia den heinean.

7.- Bat egiten du mugimendu feministak egun honen bueltan antolatutako mobilizazioekin eta ekimenekin, eta jendarte osoari parte hartzeko deia egiten diogu.